



astea

A U R K I B I D E A

- 1 Kontzeptuak
- 2 Urratsak
- 3 Aktibitateak

- 4 Ebaluaketa
- 5 Jakintasunak eta hizkuntza edukiak

1 KONTZEPTUAK

Astea zazpi eguneko denboraldia da. Zazpi egunak hauek dira ordenan : astelehena, asteartea, asteazkena, osteguna, ostirala, larunbata (ebiakoitza) eta igandea.

Zubereraz : astelehena, asteartea, asteazkena, osteguna, ostiralea, neskeneguna, igandea.

2 URRATSAK

- Ikasleak dakitenetik abiaraz. Aste bat zer den galda.
- Asteko egunen zatiketa (aste zibila) konbentzionala dela adieraz, erran nahi baitu jendeak hala hitzarturik.
- Astea edozein egunetatik has daiteke ; ostegunetik ostegun arte aste bat da eta hori ikasleek ongi bereganatu behar dute.
- Kultura edo erlazio batetik bestera, aste zibila ezberdina da.
- Langile gehienentzat asteak bi zati ditu : aste barnea (lana) eta asteburua (pausa).
- Haur eta ikasleentzat abantxu berdina da, salbu tipienak asteazkenetan ez direla eskolara joaiten.

3 AKTIBITATEAK

ASTEKO EGUN BEZAINBAT FITXA  *ikaslearen 1. eta 1. bis fitxak*

▼ **Lehenik**

Haur bakoitzak, egunean zehar burutzen dituen egintzen irudikapenak aitzurrekin moztuko ditu ; eguneko egintzak kronologikoki sailkatuko ditu eta bere fitxan (egunaren irudikapenean) itsasiko.

▼ **Ondotik**

Irakasleak haur bakoitzari eginarazten dio egunekoa edo bezperakoa (igandekoa astelehenean eta abar...), orotaraz zazpi egunetako fitxak egin arte. Fitxak, ordenan loturik bat besteari, akordeoi gisa eman daitezke edo zilindro gisa.

Oharrak :

- *Bistan da, astearen luzetasuna egunaren luzetasunaren araberakoa izan behar da, hots, zazpi aldiz handiagoa. Horrek erran nahi du irakasleak aste bateko lana murruan itsasi nahi baldin badu, metro bat eta erdiko eremua atxiki behar duela.*
- *Irudien azpian, egintza zein den idatz daiteke.*
- *Lan honen burutzeko, beharrezkoa iduritzen zaigu burrasoak ariketa horien jakinean emaitza, haurrak asteazkenean, larunbatean eta igandean etxean baitira eta menturaz, laguntza beharretan izanen baitira.*

ASTE BATEN IRUDIKAPEN EZBERDINAK

▼ Lerroan  ikaslearen 2. fitxa

uztaila


astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala	larunbata	igandea
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

▼ Zutabean  ikaslearen 2. fitxa

agorrila (abuztua)

astelehena		4	11	18	25
asteartea		5	12	19	26
asteazkena		6	13	20	27
osteguna		7	14	21	28
ostirala	1	8	15	22	29
larunbata	2	9	16	23	30
igandea	3	10	17	24	31

▼ Borobilean. Astearen errota  ikaslearen 3. fitxa



HERENEGUN, ATZO, GAUR (EGUN), BIHAR, ETZI


Egunari doakion moduloan, *atzo*, *gaur* eta *bihar* denboraren kontzeptuak sartu ditugun gisa berean, asteari doakion modulo honetan, *herenegun*, *atzo*, *gaur (egun)*, *bihar* eta *etzi* kontzeptuak ere sartuko ditugu.

Etzidamu ere sar daiteke, menturaz, eta gisa berean *joan den asteen*, *heldu den asteen*, *gaur zortzi*, *atzo zortzi* edo *bihar zortzi*...

ASTEKO 7 EGUNAK  ikaslearen 3. eta 4. fitxak

Haurrak egunen izenak, ariketa batzuen bidez gogoz atxikitzen eta idazten trebatu behar du. Hona bi joko :

▼ Ordena zuzenean eman :



▼ Letra zopa honetan asteko hiru egun atzeman itzazu.

I	I	G	A	Y	S	V	A	N
A	G	E	N	L	E	G	S	S
L	A	R	U	N	B	A	T	A
M	N	J	G	D	K	S	E	L
M	D	N	E	X	Q	A	A	E
R	E	I	T	O	V	T	Z	X
C	A	S	J	N	A	E	K	N
B	H	O	T	O	Z	N	E	U
I	Z	K	I	M	A	P	N	F
A	B	I	O	N	Z	R	A	L

.....

.....

.....

lehen ariketa

Goi mailako ariketa

Hizkuntza

Denboraren egituraketa

Egun osteguna da. Hori jakin eta, emazu gurutze bat behar den tokian.

- Atzo, asteazkenarekin, igerilekura joan ginen.....BaiEz
- Bihar ez dugu eskulanik eginen, ostirala baita.....BaiEz
- Gaur ostirala da eta merkatura abian naiz.....BaiEz
- Etzi larunbata izanen da eta medikuarengana joanen naiz.....BaiEz
- Atzo astelehena zen eta nire izebaren ikustera joan nintzen.....BaiEz
- Herenegun asteartea zen eta planetariumera joan zineten.....BaiEz
- Etzidamu igandea da, eskolen arteko saskibaloï xapelketa eguna.....BaiEz

2. ariketa

Hizkuntza

Denboraren egituraketa


Ihardets irudietako galderei.



Hizkuntza

Denboraren egituraketa




Ondoko errota zazpi borobilez osatua da. Asteko zazpi egunak ordenan idatz itzazu borobilen barnean.



ERABIL ETA LANT DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK


1 Espazioaren eta denboraren oinarrizko kontzeptuen eraikuntza

(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 88. or.).

Bere burua, iragan edo etorkizun hurbilean koka dezake eta gero aitzinatuz bezala, urrunagoko iraganean eta etorkizunean.	
Urtea kudeatzen edo antolatzen duten egutegiaren ezagutza egiten du (urtea, ikasturtea, sasoinen zikloa...).	
Bere espazio ezagunaren irudikapen sinpleen egiten hasten da eta gero experimentaziotik urrunduak dauden espazio abstratuagoak kondutan hartzen ditu ; bere burua horietan kokatzen ahal du.	

2 Metodologia jakintasanak



(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 89-91 or.)

Notizietan eta liburuxketan dauden argitasunen erabiltzeko gai da.	
--	---

ERABIL ETA LANT DAITEZKEEN HIZKUNTZA JAKINTASUNAK



1 Ahozko hizkuntza erabili

(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 94. or.).

Bere ekoizpenen, jarreraren eta ekimenen aipatzeko, haurrak bere solasaldia eskema logiko batean sartu behar du.	
Haurrak, plantan hitzegiteko eta joskera osatuagoaren erabiltzeko gai izan behar du.	

2 Hizkuntzaren menperatzeko jakitateak


(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 100-101. or.).

Hiztegia : haurrak, kontestuaren arabera, hitz baten erranahi zehatza bereizi behar du.	
Ortografia : testu bat hutsik egin gabe kopiatu behar du.	


ERABIL ETA LANT DAITEZKEEN ERAKAS ALORRETAKO JAKINTASUNAK





1 Matematika/neurriak

(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 111. or.).

Memento batzuen ezagutzeko edo iraunaldien kalkulatzeko egutegia eta ordulari digitala edo berdin orratzekilakoa erabiltzen jakin behar du.	
---	---

2 Munduari ohartu (ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 112. or.).

Urrats kronologikoen ordenatzen hasten da urruneko iragana bereiziz. Horretarako, zibilizazio elementu batzuetatik eta berak belaunaldiez duen esperientziatik abiatzen da.	
---	---

Iraganari dagokion informazio bat identifikatzen du kronologia batean kokatuz (lehen, gero, denbora berean).	
Plano simple bat bere argibideekin eraikitzen hasteko eta baliatzeko gai izan behar du. Jendei buruzko geografia eta geografia fisikoari dagozkien elementu batzuen hiztegi zehatzaren erabiltzeko ere bai (auzoa, hiria, herria ; baserria ; eguraldia ; zelaia, mendia ; etxaldea, lantegia, saltegia...).	
Ikertu dituen inguruetako elementu zenbait ezagutzen ditu aireko argazkietan eta planoetan.	
Mapetan, lur bolan edo planisfero batean kokatzen ditu ikertu dituen inguruneak.	

HIZKUNTZA EDUKIAK

GRAMATIKA EDUKIAK	ADIBIDEAK
<p>1. Aspektua Bururatua/ez-bururatua/gertakizuna Aditz nagusiaren aspektu-markak : -TU/-TZEN/-KO</p>	<p>Bihar liburuxka bat irakurtuko dut. Goizean matematika ariketa bukatu nuen. Etzi, marrazkia egingen dut.</p>
<p>2. Tempusa *edun eta izan aditz laguntzaileekin Orainaldia/iraganaldia</p>	
<p>- (a) N inesiboa</p>	
<p>Denborazko perpausen osagailu batzu : -ean, -larik, ondotik, lehenago, aitzinean.</p>	<p>Astelehenean euria egin du. Asteazkenean haizeak ufatu du. Atzo arratsaldean margotu dugu eta ondotik gure lanaz hitz egin dugu. Bihar kirola egin baino lehenago sartuko gara ikasgelan.</p>

HIZTEGI EDUKIAK	
Asteko zazpi egunak	Astelehena, asteartea, asteazkena, osteguna, ostirala, larunbata (ebikoitza), igandea.